

Iraunkortasun Plana 2018



Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza	2
2018ko Petronorren Iraunkortasun Plana. Ekintzak.	3
Garapen Iraunkorrerako Helburuak	4
● Etika eta gardentasuna	5
● Pertsonak	8
● Operazio segurua	11
● Ingurumena	13
● Aldaketa klimatikoa	16
● Berrikuntza eta teknologia	18
Plan hau eguneratzeko prozesua	21

Lege-oharra

Iraunkortasun Plan honek zenbait ekintza jasotzen ditu, osorik edo partzialki, legeak eskatzen duenaz harago doazenak eta garapen iraunkorrean laguntzera bideratuta daudenak. Repsol Taldeko enpresa parte-hartzaileek horiek guztiak betetzeko eta egikaritzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, horien betearazpena aldatzeko, atzeratzeko edo deuseztatzeko ahalmena gordetzen dute horrek lege-erantzukizunik eragin gabe, gerta daitezkeen kasu horiek publikoki justifikatzeko konpromisoa hartzen duten arren.

© PETRONOR, S.A. 2018. Eskubide guztiak gordeta daude. Dokumentu hau Petronor, S.A.rena da soilik eta hori osorik edo partzialki erreproduzitzea baimentzen da merkataritzazko helbururik gabe hedatzeko.


Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu, pertsonen funtsezko eskubideak betetzeko behar den energiaren eskari gero eta handiagoa estaliz eta epe laburreko nahiz epe luzeko balioa sortuz.

Gizartean eta ingurumenean gaineko **inpaktu positiboak aregotu eta inpaktu negatiboak gutxitzen ditugu** gure gure balio-kate osoan, gardentasunezko jokabide etikoaren bitartez. Gure helburua ez da soilik indarrean dauden arauak betetzea, nazioarteko estandar nagusiak aintzat hartzea baizik.

Abiapuntu hauen harira, gure iraunkortasun-ereduak irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenari dagozkionak txertatu ditu erabakiak hartzeko prozesuetan, interesko taldeekiko elkarriketan oinarrituta. Urtero errepikatzen dugun jardunbide honen bidez, intereseko talde horien kezkei erantzuteko moduko ekimenak sortzen ditugu. Halaxe sortzen dira **Iraunkortasun Planak**, ekintza-plan publikoak, urtez urte bete beharrekoak.

Iraunkortasun Plan Orokorra Repsol Taldearen Iraunkortasun Ereduaren sei ardatz inguruan moldatzen da.



2018 Petronorren Iraunkortasun Plana / 18 Ekintzak



Plan hau **intereseko taldeen artean identifikatutako aurreikuspenei** erantzunez landu da; besteak beste:

- Portaera etiko eta gardena erakustea.
- Tokiko garapen sozioekonomikoa sustatzea.
- Ingurunean eragindako ingurumen-inpaktuak gutxitzea.
- Uraren erabilera arduratsua eta eraginkorra egitea.
- Klima aldaketari lotutako kalteak saihestu edo gutxitzeko aukerak identifikatzea.



GARAPEN IRAGUNKORRERAKO HELBURUAK

17 HELBURU GURE MUNDUA ALDATZEKO

Plan hau osatzen duten **ekintzek** Nazio Batuen Garapenerako **2030 Agenda** babesten laguntzen dute, Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) hauei heltzean:



Kalitateko Hezkuntza. Hezkuntza eta tokiko enplegarritasuna erraztea da helburu honi egindako ekarpenaren ardatza, lan egokia lortzeko nahiz ekintzaitzetan jarduteko behar diren gaitasun teknikoak eta profesionalak areagotuz (4. helburua).



Genero berdintasuna. Planak genero-berdintasuna bultzatuko du lana eta familia bateragarri eginez, emakumearen parte-hartzea eta lidergo-berdintasuna zainduz (5. helburua).



Ur garbia eta saneamendua. Helburu honetan egindako kontribuzioa ur-baliabideen erabilera eraginkorra handitzean oinarritzen da (4. Helburua).



Lan egokia eta hazkunde ekonomikoa. Planak tokiko jarduera produktiboak (3. helburua) eta lan-ingurune segurua (8. helburua) bultzatzea xede duten garapen arloko politikak sustatzeko ekimenak bildu ditu.



Industria, berrikuntza eta azpiegiturak. Industrian teknologia iraunkor berriak txertatzen laguntzea da helburu honi egindako ekarpenaren ardatza (4. helburua).



Ekoizpen eta kontsumo arduratsua. Planak ekonomia zirkularra (5. helburua) eta hondakinen murrizketa (4. helburua) sustatzeko jardunbide iraunkorren aldeko proiektuak deskribatu ditu.



Klimaren aldeko ekintza. Planak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriak bildu ditu (2. helburua).



GIH. Bakea, justizia eta erakundeak. Plan honetan, etikarekin, erantzukizunarekin eta gardentasunarekin lotutako ekintzak jasotzen dira (5. eta 6. Helburuak).

1. programa



Etika eta gardentasuna

Zuzentasunez jarduten dugu gure taldea dagoen herrialde guztietan. Gure jokabide etikoak ez du soilik legearen betearazpen zorrotza barne hartzen, baizik eta horren izaera ere bai.

Ardatz honetan, konpainiak Petronorreko langile guztientzat eta hornitzaileentzat, kontratistentzat eta enpresa kolaboratzaileentzat **zuzentasunezko eta erantzukizunezko kultura** bat sustatzen eta bultzatzen duela bermatzen duten ekintzen multzoa ezartzen dugu.

Gainera, **gardentasuna eta kontu-ematea** definitzen ditugu iraunkortasun-ereduaren elementu bereizgarri gisa. Sinesgarria izateko, funtsezkoa da gardena izatea modu jarraituan.

Iraunkortasun Plan honetan, zenbait ekintza ezarri dira konpainiak arlo honetan bere buruari proposatutako erronkak lortzen laguntzeko, baita alde interesdunen itxaropen nagusiei erantzuteko ere.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu.
- Gobernu oneko jardunbideak
- Gardentasuna
- Fiskalitate arduratsua
- Ustelkeriaren aurkako jarrera
- Bidezko konkurrentzia
- Erantzukizunezko parte-hartze politikoa
- Marketin eta salmentako bidezko jardunbideak

EKINTZA

Petronorren Etika eta Jokabideari buruzko Kodearen araberako prestakuntza ematea lan-hitzarmentik kanpo dauden pertsoneri eta Zuzendaritza Batzordeko kideei.

DESKRIBAPENA

Ikastaroa egiteko, prestakuntzaren kudeatzaileak ikuspegi honetan oinarrituta daukan sistematikaz baliatuko gara.

ADIERAZLEA

% 100eko parte-hartzea lortzea online ikastaroan.

GIH-ETARAKO
EKARPENA



EKINTZA

Petronorren ekarpen fiskalaren berri ematea publikoki.

DESKRIBAPENA

Urterik urte, Konpainiaren webgunean argitaratuko dugu Petronorrek Foru Ogasunari egindako ordainketaren zenbatekoa eta doitutako diru-bilketa garbiaren gainean duen pisua.

ADIERAZLEA

Urtero Konpainiaren webgunean argitaratzea.

GIH-ETARAKO
EKARPENA



EKINTZA

Plantaren operatibitatearen harira sor daitezkeen ingurumen arloko kexa eta erreklamazioei erantzutea.

DESKRIBAPENA

Kanpoko jakinarazpenei (SOS DEIAK, auzokideak, intereseko taldeak) arreta egiteaz gain, balizko gorabeheren berri emango dugu aldez aurretik, egoera operatiboan bilakaera aztertuz.

ADIERAZLEA

Kanpotik jasotako kexak eta erreklamazioak zenbatu eta kudeatuko ditugu.
Jasotako kexak murriztuko ditugu 2017an jasotakoen aldean.

**GIH-ETARAKO
EKARPENA**



2. programa



Pertsonak

Gure langileak, erkidegoak, gure merkataritza-harremanak eta gure bezeroak ezinbesteko ardatz bat dira gure iraunkortasun-ereduan.

Jakin badakigu **Petronor osatzen duten pertsonak** direla gure lehiaketa-abantaila nagusia, baita **konpainia iraunkor bat izateko giltzarria** ere. Gure profesionalen taldea anitza eta aditua da eta konprometituta dago. Aukera-berdintasunaren alde egiten dugu, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen integrazioaren alde, kultura-aniztasunaren alde, bizitza profesional eta pertsonalaren arteko orekaren alde, prestakuntzaren eta garapenaren alde eta erakarpenaren eta adimenaren atxikipenaren alde.



Enpresa-jarduera gero eta informazio eta eskakizun maila handiagoa duen gizarte ingurunean gauzatzen da, eta konpainiok ahalegin berezia egiten dugu **elkarreraginean dihardugun eragileekin harreman sendoak ezartzeko**, bereziki gure eragiketa-eremutik hurbil dauden komunitateekin, betiere errespetua, kultura-sentiberatasuna, zintotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, asmo ona eta diskriminaziorik eza oinarritzat hartuta. Petronorren, giza-eskubideak errespetatzen jarraitzearen aldeko konpromisoari eusten diogu, gure jarduerak eta erabakiek inguruko pertsonen kalteko ondorioak eragitea saihestuz eta, halakorik gertatzekotan, eragindako kaltea konpontzeko egin daitekeen guztia egiteko aukera bultzatuz.

Ardatz honi ondoko ekimen hauek dagozkie.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Giza-Eskubideekiko errespetua (lan-eskubideak eta lan-baldintzak, osasuna, kolektibo kalteberen eskubideak eta bestelakoak)
- Erreklamazio mekanismoak
- Aniztasuna eta lana eta familia bateratzea
- Talentua sustatu eta atxikitze giroa
- Aukeren kudeaketa (prestakuntza eta garapena, komunitatearekiko elkarrizketa eta gizarte-inbertsioa, etab.)

EKINTZA	Toki erakundeekin, foru erakundeekin, Euskadiko erakunde autonomikoekin eta Estatuko erakundeekin lankidetzan jardutea garapen ekonomiko eta sozialerako ekimenetan.
DESKRIBAPENA	Erakundeen bultzada errazteko behar diren baliabideak eskainiko ditugu garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderdietan.
ADIERAZLEA	Erakunde nahiz instituzioekiko 6 akordio gauzatzea.
GIH-ETARAKO EKARPENA	
EKINTZA	Enplegua eta tokiko industria-sarea mantentzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	<p>Tokiko enplegarritasuna bultzatuko dugu Somorrostro Prestakuntza Zentroarekin batera garatutako aplikazioaz baliatuta, enplegua eskatzen duten pertsonak enpresa kontratatzaileekin lerrokatuz.</p> <p>Tokiko industria-sarea mantentzen lagunduko dugu, tokiko hornitzaileekiko kontsulta sustatuz eta lizitazioetan ezaugarri hau bultzatuz.</p>
ADIERAZLEA	<p>Gutxienez, 50 pertsona kontratatzea egun dagoen Plataformaren bitartez.</p> <p>Gutxienez, 2018an egindako kontratu/eskarien % 20 bertako enpresei esleitzea.</p>
GIH-ETARAKO EKARPENA	

EKINTZA	Berdintasun Planean lana eta familia bateragarri egin ditzaketen ekintzak bultzatzea.
DESKRIBAPENA	Berdintasun Planean zehaztutako ekintzak sustatuko ditugu gure langileen artean.
ADIERAZLEA	Helburutzat finkatu da baliabide hauek (lana eta familia bateragarri egitea) gutxienez 20 pertsonari eskaintzea.
GIH-ETARAKO EKARPENA	
EKINTZA	Unibertsitateei eta Lanbide-Heziketako ikastetxeei zuzendutako bisita eta mintegi teknikoak sustatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitateen eta Lanbide-Heziketako Zentroen informazio-eskaerei erantzungo diegu. Bi lankidetzajarduera ezarriko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Petronorren instalazioetarako bisitak erraztuko dizkiegu Lanbide-Heziketako Zentroi eta Unibertsitateei.- Prestakuntza-profil horien arabera prestakuntza eta praktiketarako hitzarmenak landuko ditugu erakunde horietako ikasleentzat. <p>Laborategia sail egokia da, beste batzuekin batera, jarduera mota hori egiteko.</p>
ADIERAZLEA	<p>Gutxienez, 3 bekadun hartuko dira praktikak bertan egin ditzaten.</p> <p>Gutxienez, Laborategiari eskatutako bisiten hiru laurdeni erantzungo zaie.</p>
GIH-ETARAKO EKARPENA	

3. Programa



Operazio segurua

Zero Istripuko helburua lortzeko asmoz, segurtasunari buruzko eskakizun-maila handia ezarri dugu gure prozesu eta instalazioetan, pertsonen eta ingurunearen babesari arreta berezia emanez. Hartara, neurri zorrotzak aplikatu ohi ditugu gure instalazioen diseinuan eta mantentze-lanetan, arriskuen azterketa nazioarteko jokabiderik onenen arabera egiten dugu, eraginkortasunez kudeatzen ditugu larrialdiei eman beharreko erantzuna eta gure langileen gaikuntza egokia bermatzen dugu. Gainera, giltzarritzotzat jotzen dugu alde aurreko segurtasuna istripu industrial handiak saihesteko.

Eta segurtasunaz ari garela, ez dugu findegiko instalazioetara mugatzen, baizik eta **konpainiaren hornitzaile eta kontratisten** sentsibilizaziora hedatu nahi dugu.

Konpromiso honen harira, segurtasunari dagozkion helburuek eragin zuzena dute langileen **ordainsari aldakorraren gainean**, % 10 eta % 20 bitartekoa.

Jarraian, segurtasunaren aldeko konpromisoa eta Zero Istripuko helburua betetzeko abiarazi ditugun ekintzak zehaztuko ditugu.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Pertsonen, prozesuen eta garraioaren istripugarritasuna prebenitzea
- Gorabeheren kudeaketa
- Larrialdien kudeaketa
- Produktuen erabilpen segurua

EKINTZA

Tokiko erakundeekin lankidetzan jardutea Industria Segurtasunari dagokion gaietan.

DESKRIBAPENA

Lankidetzabideak ezartzea inguruko beste erakunde batzuekin; adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Suhiltzaileekin.

ADIERAZLEA

Urtean gutxienez bi bilera egitea informazioa trukatzeko.

GIH-ETARAKO EKARPENA



EKINTZA

Petronorrek gorabehera industrial handiak saihesteko zehaztua duen aldez aurreko segurtasun programa betetzea: SMArt Keys.

DESKRIBAPENA

Gorabehera pertsonalak eta prozesuen segurtasunari dagozkionak murriztea, 2020rako zehaztuta dagoen ibilbidearen arabera.

ADIERAZLEA

2,5eko IFTtik beherako istripugarritasun pertsonala.

1,07ko IF(TIER1/TIER2)-tik beherako segurtasuna prozesuetan.

Prozesuen Segurtasunerako Oinarrizko Arauen definizioa eta hedapena.

2017an ezarritako planen hedapena.

GIH-ETARAKO EKARPENA



4. programa



Ingurumena



Petronorren, gizartearen kezka partekatuz, gure bizitzari eusten dion ingurumena zaindu behar dela uste dugu. Hartara, gure jardunak ahalik eta inpakturik txikiena eragina dezan, **isurketa gutxiko estrategiari eusten** diogu, uraren erabilpena optimizatuz, isurketen kutsadura murriztuz, hondakinen kudeaketa egokia eginez, balizko isuriak prebenitzeko eta horiei erantzuteko sistemak hobetuz eta bioaniztasuna giltzarritzko elementutzat hartuz.

Gure gain hartu dugu ohiko jardunean baliabideen erabilpen eraginkorragoa eta zirkularragoa egiteko konpromisoa. Petronorren, erronka berri bat daukagu 2016az geroztik: ekonomia kolaboratiboa sustatuko dituzten Ekonomia Zirkularreko aukerak bilatzea, baliabideak erauzi, erabili eta egozten dituen ekonomia linealaren alternatiba gisa.

Iraunkortasun Plan honetan, Petronorrek iraunkortasun-ardatz honetan finkatuak dituen lan-ildoekin lerrokatutako ekintzak gauzatzeko konpromisoa hartu dugu.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra
- Ingurumen-inpaktuak gutxitzea

<p>EKINTZA</p>	<p>Uraren Liburu Zuria lantzea, konpainiaren posizionamendua deskribatuz eta baliabidearen jatorriko kudeaketa iraunkorrean, erabilpenean nahiz geroko isurketan jarraitu beharreko jardunbiderik egokienak zehaztuz.</p>
<p>DESKRIBAPENA</p>	<p>Konpainiaren posizionamendua eta baliabidearen jatorriko kudeaketa iraunkorrean, erabilpenean nahiz geroko isurketan jarraitu beharreko jardunbiderik egokienak deskribatzen dituen Uraren Liburu Zuriaren elaborazioaren bitartez, uraren kudeaketari dagokion jardunbide egokiak identifikatuko ditugu.</p> <p>Amaierako dokumentua [Liburu Zuria] lantzen lagunduko dugu, idazketan sor daitezkeen zalantzak argituz eta, batez ere, amaierako dokumentua baliozkotuz.</p>
<p>ADIERAZLEA</p>	<p>Uraren Liburu Zuria landuko duen taldean parte hartzea, DSMAirekin batera.</p>
<p>GIH-ETARAKO EKARPENA</p>	
<p>EKINTZA</p>	<p>Zaratak eta usainak murrizteko plana lantzea.</p>
<p>DESKRIBAPENA</p>	<p>Ingurunearekiko konpromisoari eutsi eta ekintzetan jarrera proaktiboa duen enpresa garen aldetik, prozesu eta jardueren inpaktua aztertuko dugu, eragindako arazoak eta molestiak identifikatzeko. Horretarako, arazoak sorraraz ditzaketen jardueren berri emango zaio azterketa landuko duen taldeari, balizko hobekuntza-ekintzak zehaztuz joateko.</p>
<p>ADIERAZLEA</p>	<p>Taldeak hiruhileko bilerak egingo ditu, identifikatutako hobekuntza-proposamenak aztertu eta bultzatzeko.</p>
<p>GIH-ETARAKO EKARPENA</p>	    

EKINTZA	Itsas Terminalean konposatu organiko lurrunkorrek biltzeko sistemak instalatzea.
DESKRIBAPENA	Ingurumenaren babesaren arloan dauden Hobekuntza Tekniko Eskuragarriak garatzen eta ezartzen jarraituko dugu, 2018ko urrian indarrean sartuko den 2014/738/UE ebazpenaren arabera.
ADIERAZLEA	2018an, instalazioa gauzatzeko lanetan % 40 aurrerakada lortzea.
GIH-ETARAKO EKARPENA	
EKINTZA	Baliabide hidrikoak arduraz erabiltzea.
DESKRIBAPENA	Proiektu bideragarriak garatzen jarraituko dugu industria erabileretarako ura biltzeko. Horrela giza-kontsumorako uraren erabilera saihestuko dugu.
ADIERAZLEA	Proiektuen aurrerapen maila.
GIH-ETARAKO EKARPENA	

5. programa



Aldaketa klimatikoa

Petronorrek bat egiten du **giza-jarduerak klimaren gainean** izaten ari den ondorioaren eta horrek beroketa globalean duen eraginaren inguruko kezkaekin.

Horretarako, gure instalazio eta jardueretan **energia eraginkortasunez erabiltzeko** konpromisoa hartu dugu gure gain. ISO 50.001 arauaren arabera energia kudeatzeko sistemak eta BEGen isurketak murrizteko planak ditugu gure instalazioetan, eta 2020ra begira, gure helburua urtean 5 Mt CO2b murriztea da 2005az geroztik.

Gas naturalaren erabilpena bultzatzen dugu etorkizuneko isurketa gutxiko egoeraranzko trantsizio egituratua sustatzeko, eta **karbonoaren atzitzea, erabilpena eta biltegitzea** klima-aldaketa arintzeko moduko teknologiatzat bultzatzeko. Repsol Taldea Oil and **Gas Climate Initiative (OGCI)** delakoarekin bat eginda dago jardunbide eta soluzio teknologikorik onenak partekatzeko, eta horrez gain, BEGen isurketak murrizteko teknologien garapenerako datozen 10 urteotan 1.000 M\$ inbertituko dituen OGCI Climate Investment inbertsio-funtseko kidea da.

Jarraian, ardatz honekin lotutako Iraunkortasun Planeko ekintzak jasotzen ditugu.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Energiaren kudeaketa eraginkorra
- BEGen isurketen murrizketa bultzatzea
- Elektrizitate-sorkuntzan gas naturalaren erabilera sustatzea
- Mugikortasun iraunkorra
- Isurketa gutxiko ekonomia eredua

EKINTZA

Hobekuntza energetikoak eta berotegi-efektuko gasak murrizteko neurriak ezartzea.

DESKRIBAPENA

Energia-eraginkortasunaren aldeko proiektuak garatuko ditugu, lurruna eta erregaia aurrezteko eta CO₂ isurketak murrizteko.

Energia-eraginkortasunari dagokion ISO 50.001 araua ezarriko dugu.

ADIERAZLEA

ISO 50.001 arauari dagokion ziurtagiria lortzea.

GIH-ETARAKO EKARPENA**EKINTZA**

Berotegi-efektuarekin lotutako gasak aztertzea xede duten nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.

DESKRIBAPENA

Klima-aldaketaren aurkako borrokan jarrera proaktiboa duen enpresa teknologiko aurreratua garen aldetik, berotegi-efektuko gasak aztertzea xede duten nazioarteko korrelazioetan parte hartuko dugu. Korrelazio hauek bere horretan frogatzen dute gure laborategiko saiakuntzetako analisiak neurtzeko aplikatutako metodologiaren zorrotasuna. Egiaztatze-lana beste herrialde batzuetako laborategi ospetsuen laguntzaz egiten da, nazioartean aintzatestutako erakundeen partaidetzaz.

ADIERAZLEA

Korrelazioan izandako parte-hartzea.

GIH-ETARAKO EKARPENA

6. programa



Berrikuntza eta teknologia

Etorkizuna iraunkorra izateko, beharrezkoa da **konpainiek zientzian eta teknologian inbertitzea**, oraingo eta etorkizuneko erronka energetikorako konponbide errealekin laguntzeko. Uste dugu berrikuntza teknologikoa sistema energetiko eraginkorragoak eta inguruarekiko iraunkorragoak eraikitzekeko elementu bat dela.

Petronorren, **unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin sareko lankidetzaren alde** egiten dugu, energiaren eremuan handinahi handiko ideiak abiaraztea sustatuz, horiek aurre egin behar diegun erronkei erantzuten laguntzeko eta horrela etorkizun iraunkorra eraikitzekeko, ingurumenarekiko konpromisoa hartuz.

Era berean, bioenergia, mugikortasun iraunkorra, energia-biltegitratzea, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriekin lotutako garapen-bideko esparruetan, aliantzak bultzatu eta enpresak hazten laguntzen dugu.

Iraunkortasun Plan honetan, Petronorrek iraunkortasunaren ardatz honetan ezarriak dituen lan-ildoekin lerrokatutako ekintza hauek gauzatzeko konpromisoa aitortu da.

Petronorren, garapen iraunkorra bultzatzen laguntzen dugu

- Jarduera berritzailea bultzatzea
- Teknologia berrien erabilera
- Gaikuntza sustatu eta ingurunearen garapena erraztea

EKINTZA	Petronor-Innovacion erakundetik jarduera berritzailea bultzatzea
DESKRIBAPENA	<p>Identifikatutako alderdiak garatuko ditugu, berrikuntzaren ikuspegitik eta honako ildo teknologiko hauetara bideratuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasun iraunkorra. - Sektorearen prozesuen, zerbitzuen eta bestelako jardueren digitalizazioa. - Zerbitzu energetikoak eta mikro-sareak.
ADIERAZLEA	Petronor-Innovacionek garatutako 3 ekimen berritzaile abiarazi eta inplementatuko ditugu, gutxienez.
GIH-ETARAKO EKARPENA	
EKINTZA	Plantan egin beharreko ohiko zereginetarako (lan-baimenak, plantako irakurketak) ATEX telefono mugikorrek ohiko tresnatzat txertatzea.
DESKRIBAPENA	Telefono mugikor horiek bezalako ekipo elektronikoak erabiliko ditugu lan sistematika antolatzeko, ohiko sistematikaren ordez.
ADIERAZLEA	<p>Sailen artean banatutako ekipo kopurua zenbatuko dugu, gutxienez 20 postu hornitzeko helburuari jarraiki.</p> <p>Era honetan egindako lan-baimenen portzentajea zenbatuko dugu, gutxienez 100 lan-baimen egiteko helburuari jarraiki.</p>
GIH-ETARAKO EKARPENA	

EKINTZA

“REQUIPLAST: Hondakin plastikoen birziklatze kimikoa” deritzon Ekoberrikuntzaren arloko proiektua gauzatzea. Plastikoen ekonomia zirkularrari buruzko egiazko ikuspegia.

DESKRIBAPENA

“REQUIPLAST: Hondakin plastikoen birziklatze kimikoa” deritzon Ekoberrikuntzaren arloko proiektuan aurreikusitako zereginak beteko ditugu. Plastikoen ekonomia zirkularrari buruzko egiazko ikuspegia. Mekanikoki ezin birzikla daitezkeen hondakin plastikoen birziklatze kimikoa aztertzea du xede, haiei aplikatutako tratamendu termikoko prozesuen bitartez findegian erabiltzeko moduko olioak lortuz.

ADIERAZLEA

Proiektuaren etapa guztiak gauzatzea.

GIH-ETARAKO
EKARPENA



Plan hau eguneratzeko prozesua

Iraunkortasun Plan hau dokumentu dinamiko bat da.

Urtero, plan honetan jasotako ekintzen lorpen-mailaren inguruko kontuak emango ditugu, itxierako txosten bat argitaratuz.

Bestalde, alderdi interesdunentzat kezkarriak diren itxaropenak edo gaiak aldatzen direnez eta urtean zehar gertatzen diren gauzen araberakoak direnez, plan hau urtero eguneratuko da ekintza berriekin edo indarrekoak birformulatuz, egoera berrira egokitzeko.

Planaren ondorengo eguneraketekin, betetako zenbait ekintza utziko dira atzean; horiek, batera, gure konpainiak garapen iraunkorrari dagokionez egindako kontribuzioa osatzen dute.

Ekintzen aurkibidea

Lege-oharra	1
Iraunkortasunari buruz daukagun ikuspegia eta plan honen prestakuntza	2
2018ko Petronorren Iraunkortasun Plana. Ekintzak.	3
Garapen Iraunkorrerako Helburuak	4
1. programa: Etika eta gardentasuna	5
Petronorren Etika eta Jokabideari buruzko Kodearen arabera prestakuntza ematea lan-hitzarmenetik kanpo dauden pertsonen eta Zuzendaritza Batzordeko kideei.	6
Petronorren ekarpen fiskalaren berri ematea publikoki.	6
Plantaren operatibitatearen harira sor daitezkeen ingurumen arloko kexa eta erreklamazioei erantzutea.	7
2. programa: Pertsonak	8
Toki erakundeekin, foru erakundeekin, Euskadiko erakunde autonomikoekin eta Estatuko erakundeekin lankidetzan jardutea garapen ekonomiko eta sozialerako ekimenetan.	9
Enplegua eta tokiko industria-sarea mantentzen laguntzea.	9
Berdintasun Planean lana eta familia bateragarri egin ditzaketan ekintzak bultzatzea.	10
Unibertsitatei eta Lanbide-Heziketako ikastetxeei zuzendutako bisita eta mintegi teknikoak sustatzea.	10
3. programa: Operazio segurua	11
Tokiko erakundeekin lankidetzan jardutea Industria Segurtasunari dagokion gaitan.	12

Petronorrek gorabehera industrial handiak saihesteko zehaztua duen aldez aurreko segurtasun programa betetzea: SMARt Keys.	12
4. programa: Ingurumena	13
Uraren Liburu Zuria lantzea, konpainiaren posizionamendua deskribatuz eta baliabidearen jatorriko kudeaketa iraunkorrean, erabilpenean nahiz geroko isurketan jarraitu beharreko jardunbiderik egokienak zehaztuz.	14
Zaratak eta usainak murrizteko plana lantzea.	14
Itsas Terminalean konposatu organiko lurrunak biltzeko sistemak instalatzea.	15
Baliabide hidrikoak arduraz erabiltzea.	15
5. programa: Aldaketa klimatikoa	16
Hobekuntza energetikoak eta berotegi-efektuko gasak murrizteko neurriak ezartzea.	17
Berotegi-efektuarekin lotutako gasak aztertzea xede duten nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.	17
6. programa: Berrikuntza eta teknologia	18
Petronor-Innovación erakundetik jarduera berritzailea bultzatzea.	19
Plantan egin beharreko ohiko zereginetarako (lan-baimenak, plantako irakurketak) ATEX telefono mugikorrek ohiko tresnatzat txertatzea.	19
“REQUIPLAST: Hondakin plastikoen birziklatze kimikoa” deritzon Ekoberrikuntzaren arloko proiektua gauzatzea. Plastikoen ekonomia zirkularrari buruzko egiazko ikuspegia.	20
Plan hau eguneratzeko prozesua	21
Ekintzen aurkibidea	22

www.petronor.eus

